

Enpresan, produktua aurrera eramateko, hainbat funtsezko jarduera beharrezkoak dira. Alde batetik, ekoizpena daukagu, gure produktua egitea izango da gure jarduerarik nagusiena eta besteak bere baitan mugituko dira beste guztiak. Beste alde batetik, simuladorea daukagu. Bertan, jenderi gure produktuaren erabilera nolakoa den azaltzea dugu helburu. Gure produktuaren helburua, gasolina alde batera uztea da, eta simuladorearen bitartez oso ondo ikus daiteke zein nolako prozedura daraman eta zer den lortu nahi duguna.

Horrez gain, produktua aurrera eramateko oso garrantzitsua ikusten dugu konferentziak egitea. Bertan, gure produktua nolakoa den, nortzuk garen eta gure egitasmoak zeintzuk diren mundu mailan ezagutaraztea da helburua.

Beste funtsezko jarduera, I+G+b da.. Jarduera honek produktua aurrera eramateko eta merkatuan beti puntan egoteko jarduerak ahalbideratuko dizkigu. Gure enpresa etengabeko berrikuntza batean egingo da sartuta.

Azkenik, aeronautikarekin zerikusia duten lekuetan bilerak egitea funtsezkoa da. Horren bidez, bertan lan egiten duten profesional askoren iritziekin produktua aurrera eramatea eta praktikan gauza asko ikastea daukagu helburu bezala.